



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 16a

5. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—11-23/LEY-00011. Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errefusatu dezan edozein gobernu lortze aldera babesa ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

—11-24/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzeko prozesua. Javier Arza Porrás jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu hizkera inklusibo delakoaren erabilera ezabatzeke Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko aurrekontua handituko duen talka-plan bat ezar dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Moves Plana luza dezan. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-24/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan. María Olga Chueca Chueca andreak aurkeztu du (9. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-23/LEY-00011. Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akats bat atzeman da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legean, zeina 2023ko abenduaren 26ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

Zazpigarren artikulua hamaikagarren apartatuan, honako hau esan ordez:

“Hamaika. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko egiten diren eskaerei, baldin eta diru-bilketaren kudeaketa lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, hogeita hamazazpi-

garren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie”.

Honako hau esan behar du:

“Hamaika. Berrogeigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Berrogeigarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko egiten diren eskaerei, baldin eta diru-bilketaren kudeaketa-lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, hogeita hamazazpi-

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita errefusatu dezan edozein gobernu lortze aldera babesa ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita errefusatu dezan edozein gobernu lortze aldera babesa ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularraren (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Iruñeko Udalean aurkeztu den zentsuramozioaz geroztik, alkatetza ez dago jada boto gehien lortu zuen zerrenda den UPNren eskuetan, EH Bilduren eskuetan baizik. Udal-gobernuaren aldaketa horretarako, beharrezkoa izan da Geroa Bai, Contigo-Zurekin eta PSNren sostengua.

EH Bildu alderdia da ETaren adar politikoaren oinordekoa, eta inoiz ez du horrekiko loturarik hautsi. Horren erakusgarri dugu azken hauteskundeetan terrorismo-delituengatik zigortutako 44 pertsona aurkeztu zituela bere zerrendetan; horietako zazpi, odol-delituengatik zigortuak, zeinak, akta jaso ez bazuten ere, hautatuak izan baitziren. 2011z geroztik, 89 terrorista izan dira EH Bilduren hauteskunde-zerrendetako kide, hauteskunde desberdinetan.

Beste erakusgarri bat da alderdi horren gaur egungo koordinatzaile nagusia Arnaldo Otegi dela, ETaren adar politikoko itzal handiko buruzagia, zeina sartuta egon izan baita ETA politikomilitarrean, ETA militarrean, Herri Batasunan, Batasunan eta Sortun.

ETAk ideologia eta egoera desberdinetako ehunka pertsona erail, zauritu eta bahitu zituen bere helburuak lortu nahian; besteak beste, Espainiako bi alderdi nagusiak diren PP eta PSOeko dozenaka bidelagun.

Eraiketa eta egintza terroristak horiek alderdi politiko guztiek gaitzetsiak izan dira, EH Bilduk eta horren aitzindari izandako alderdiek izan ezik. ETA banda terroristaren hurbileko diren alderdi politiko horiek barkamen bipilik ere ez diete eskatu, ez biktimei ez haien familiei.

Ezin dugu onartu Espainiak orrialdea pasatzea atentatuaren gaitzespenik gabe, biktimei barkamenik eskatu gabe, terroristek zigorrak bete gabe. Duintasuna eta justizia defendatu behar ditugu.

Iruñeko gobernua, edo Espainiako beste edozein udalerrri edo erakunderena, EH Bilduri emateak esan nahi du babesa ematen zaiela banda terroristak eta haren inguruneak hamarkadetan zehar izandako helburuei eta erabilitako bitarteko-

ei; eta, orobat, terrorismoaren biktimak, haien familiak eta gure sistema demokratikoa bera traizionatzea da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

1. Errefusatzea EH Bilduri nahiz ETaren terrorismoa bipil gaitzesten ez duen eta bere zerrendetan odol-delituengatik zigortuak sartzan dituen beste edozein indar politikori babesa ematea edozein gobernu lortzeko.

2. Terrorismoaren biktima guztiak babestea eta gogoan izatea, eta haien memoria, duintasuna eta justizia betiere aldezea.

3. ETA banda terroristak egindako atentatu guztiak gaitzestea.

4. Alderdi politikoen arteko akordioak aldezea, erakunde eta udalerrri desberdinetan gobernatzeko moduko gehiengoak erdiestekoak, baldin eta, betiere, akordio horiek egiten badira zuzenbide-estatu errespetatzen duten, Espainiako Konstituzioari Estatuko oinarritzko arau bezala men egiten dioten eta hori bete eta betearazten duten alderdi politikoen artean, dena delako terrorismoa gaitzesten dutenak eta terrorismoaren biktimak babestu eta haiei sostengua ematen dietenak.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Javier García Jiménez

## **11-24/MOC-00003. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialistaren talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aur-

kezten du, 2024ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin, zeinaren bidez Parlamentuak berresten baitu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa aldeztu duela, eta hura premiatzen baitu Nafarroako toki-autonomiaren sustapen eta defentsan lanean segi dezan. Mozio honen segimendua Lurralde Kohesioak egiten du.

Zioen azalpena.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak 40 urte baino gehiago daramatza Nafarroako toki-entitateen multzoa babesten eta haren interesak eraginkorki aldeztu.

Eratu zenetik gaur arte, Nafarroako udal eta kontzejuak ohartuta egon dira helburu eta interes batzuk amankomunean dauzkatela, eta horiek erdiesteko modurik onena dela federazio batean elkartuta egotea.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren helburuek indarrean segitzen dute zeharo. Horien artean, honako hiru hauek nabarmenduko dira:

– Lehenik eta behin, Nafarroako toki-entitateen toki-autonomia sustatu eta hobetzea.

– Bigarrenik, Nafarroako toki-entitateek dituzten interesen ordezkartza gorpuztea foru adminis-

trazioaren eta ehundura sozial eta ekonomikoaren aurrean.

– Eta, hirugarrenik, solasgune bat eratzea, toki-zerbitzu publikoen ematea hobetzeko eta horren berrikuntzarako esperientziak ezagutu eta trukatzeko.

Nafarroako toki-entitateek lorpenak izan dituzte Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez, eta ordezkatzan dituzten herritarren mesedetan, hala nola toki-autonomia areagotzea, toki-zerbitzu publikoak modernizatzea edo haien autonomia finantzarioa hobetzea. Horrek guztiak haien herritarren bizi-kalitatea mesedetu du.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arrakastak parte handi bat zor dio Nafarroako toki-entitateen osotasunaren ordezkari jarduteko izan duen gaitasunari, zein ere den udalerrri bakoitzean agintean dagoen alderdia. Izan ere, nahiz eta federazioaren lehendakaritzara alderdi politiko desberdinetako alkate eta zinegotziak iritsi diren, alderdi-interesak lehenestean oso bestela, haien erabakirik pisutsuenek adostasun zabala lortu dute.

Halatan, federazioak eginiko plan estrategikoan jasotzen den bezala, Nafarroako toki-entitateek on irizten diote federazioak bere sorkuntzatik egi-

niko lanari eta, hori ez ezik, haren jarduerak eta zerbitzuak hedatzearen alde ere agertzen dira.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren 1982an sortu zenetik aurrera eramaten duen lana, toki-autonomia sustatu eta aldeztekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa dela Nafarroako toki-entitateen multzoaren ordezkari Nafarroako Gobernuaren, Parlamentuaren beraren eta ehundura sozial eta ekonomikoaren aurrean zilegitasunez obratzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du edozein ahalegin, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean aurreikusitako ordezkari erakundearen ordezkari gisa arituko diren udal egitura politikoak eratzeko.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Javier Lecumberri Urabayen

## **11-24/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatze prozesua**

### **JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatze prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralean (2017-2023) prebentziozko eta sustapenezko estrategiak garatzea jasotzen bazen ere, Nafarroan haurrei eta nerabeei laguntza emateko sistemak gehiegizko izaera erreaktiboa du, nagusiki kaltea konpontzeari begiratzen baitio eta, eta ez da behar bezala kokatzen komunitatean.

Horri erantzuteko, Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen III. eta IV. kapituluetan funtsezko artikulatu batzuk biltzen dira haurrei eta nerabeei babesa emateko lan komunitarioa garatze aldera. Halere, orain arte ez dira behar bezala aplikatu.

12/2022 Foru Legearen III. eta IV. kapituluak betetzeko, Nafarroako Parlamentuak honako ebazpen-proposamen hauek erabaki ditu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2024an abian jar dezan legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzekeo prozesua.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sustatu dezan legean jasotako

profesionalen prestakuntza haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2024an sor dezan legean jasotako haurren ongizatea, arreta komunitarioa eta sareko lana sustatzeko batzordea.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sustatu dezan legean jasotako arlo komunitarioko babes-mahaien eraketa.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aurrekontuetan partida bat bateratzera, haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioa garatzera bideratua.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, zehaztu dezan Nafarroako Gobernuko zein administrazio-organok izanen duen eskumena haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioaren garapena sustatu eta laguntzeko, bidenabar eginkizun hori betetzeko behar diren baliabideak emanez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

## **11-24/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisioa hartzen baitu hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeko Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere**

*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisioa hartzen baitu hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeko Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikia dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkez-

ten du, 2024ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hizkera inklusiboak baztergarritzat jo litezkeen esamoldeak edo hitzak ekiditea bilatzen du, eta arau ortografiko eta gramatikalak urratu ohi ditu. Erabilera hori artifiziosua da maiz, eta bi sexuak anbiguotasunez edo enfasis hartzen dituzten bikoizketak egiten dira, halako moduan non hizkuntzaren erabilera kakofonikoa egiten baita.

Hizkera inklusiboak arazo nabarmenak sortzen ditu hainbat testuinguruan; esate baterako, hedabideetan, legebiltzarretan, enpresetan eta ikastetxeetan. Tamalez, gero eta ohikoagoa da pertsona publikoei –politikariei, kazetariei eta enpresaburuei– hizkera inklusiboa zailtasun handiz erabiltzen entzutea, erabilgaitza delako.

Eta hori dena arrazoi ideologikoengatik, modagatik edo ondorioez ez jabetzeagatik gertatzen da; izan ere, Espainian ezarri nahi den hizkera inklusiboa buruzagiek eta politikariek baizik ez dute erabiltzen, herritarrek ez baitute erabiltzen.

Hizkera inklusiboa ez da praktikoa, eta halere Administrazio Publikoaren dokumentuetan, komu-

nikazioetan eta idazketan erabiltzen da egun, nahiz eta Administrazioak interes orokorra eta herritar guztien onura zaindu behar dituen.

Hizkera inklusiboa asmo partidistekin sortu zen, gehiengoaren irizitik eta espainiarren ohitura linguistikoetatik urrun. Maskulino gramatikalaren balio generikoa desagerraraztea gaztelaniaren erabilera zuzenean atzera egitea da, zeren eta hizkera inklusiboak ohitura ortografiko eta gramatikal alternatiboak inposatzea bilatzen baitu, derri gorrez eta modu arbitrarioan inposatu ere, ohiko erabilera eta usadioekin bat etorri gabe.

Hori dela-eta,

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeko Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

## **11-24/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko aurrekontua handituko duen talka-plan bat ezar dezan**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko aurrekontua handituko duen talka-plan bat ezar dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta Osasun Batzordean jarraipena egiteko.

Zioak.

Mundu guztia ados dago oinarrizko osasunlaguntza gure osasun-sistemaren ardatz nagusia dela esatean. Arreta-maila horrek, rol nagusi bat bete behar badu ere, arian-arian okerrera egin du azken urteotan, hainbat faktoreren ondorioz. Hori horrela, dirudienez, oinarrizko osasunlaguntzaren gaur egungo eredua –duela 30 urte baino gehiago ezarri zen garai hartako osasun-premiei erantzuteko– jada ez da eraginkorra herritarren premia berriei aurre egiteko; hortaz, gaur egun, esparru

guztietatik beharrezkotzat jotzen da laguntza-arretako lehen lerro horren eredia aldatzea.

Oinarrizko osasun-laguntzak, eredu berri bati aurre egin ahal izateko eta, horrela, osasun-sistemaren ardatz nagusi gisa duen rolari berriro ekiteko, behar adina baliabide eduki behar ditu. Horretarako, Osasunaren Mundu Erakundearen kalkuluen arabera, beharrezkoa da herrialdeek osasun-aurrekontu publikoaren % 25 inbertitzea oinarrizko osasun-laguntzan.

Osasungintza Publikoaren Defentsarako Elkar-teen Federazioaren (OPDEF) datuen arabera, Nafarroa da –Extremadurarekin batera– oinarrizko osasun-laguntzara bideratutako osasun-aurrekontuaren ehunekoak murriztu zuen autonomia-erkidego bakarra, 2022an % 15,27 baitzen, eta 2023an, aldiz, % 13. Hori horrela, oinarrizko osasun-laguntzara bideratutako aurrekontuaren ehunekoari dagokionez, Nafarroa Espainiako bigarren erkidegorik txarrena da.

Nafarroako oinarrizko osasun-laguntzak behar bezala finantzatuta egon behar du, are gehiago arreta-maila hori sistemaren giltzarri gisa identifikatzen denean; izan ere, aldaketak aurreikusten dira berriz ere hura bideratze aldera Nafarroako osasun-sisteman izan behar duen rol protagonistara. Horregatik, funtsezkoa da behar den inbertsioa lortzea osasun-aurrekontuaren behar adinako ehunekoarekin.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du talka-plan bat ezar dezan, bi urtean oinarrizko osasun-laguntzara bideratutako osasun-aurrekontua % 25era igotzeko.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Moves Plana luza dezan

### MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Moves Plana luza dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Automobil elektriko eta hibridoaren salmentari buruz ezagutu diren azken datuek gorakada bat agertzen dute, halako moldez non errekuntzakoekiko aldea murrizten baitoa, bereziki Nafarroan.

Foru Komunitatean gertatu den hazkunde handi horretan funtsezko zeregina izan dute, zalantzarik gabe, aurreko urteetan hartutako pizgarri fiskalek, ezarritako laguntzekin batera; hain zuzen ere, paradigma-aldaketa hori bilatuz.

Modu horretan, Nafarroa punta-puntako erki-dego bihurtu da Moves Planaren faseetan gaitutako funtsen erabileran. Plan hori Estatuko gobernuak sustatu zuen, Europatik datorren finantzaketarekin, Next Generation funtsen bidez, zeinak diruzko laguntza garrantzitsuak ezartzen baitzituen ibilgailu elektrikoak erosteko. Baina aipatu Moves Planak badu iraungitze-data: urte honetako ekaina.



Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Moves Plana luza dezan, edo, bestela, antzeko ezaugarriak dituen programa bat

abian jar dezan, herritarrei pizgarriak emateko beren errekontza-ibilgailuak hibridoekin edo erabat elektrikoekin ordez ditzaten.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-24/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan**

*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak egingo du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena.

Zalantzarik gabe, azken urteotan Nafarroako Gobernuaren apustu nagusietako bat izan da gure erkidegoan mendekotasuna artatzeko sistema hobetzea. UPNren gobernuak mendekotasunaren

arloan eginiko kudeaketak prestazio ekonomikoak izan zituen oinarri, zerbitzuak sortzearen kalterako, bi urtetik goitiko itxarote-zerrendak eta murrizketa ekonomikoak ere egonda. Jarduketa horiek eragin zuten Nafarroan hainbat urtetan guztiz datu txarrak izatea mendekotasuna duten pertsonendako arretan.

Nafarroako eta Espainiako gobernu progresistek lan egin dute egoera hori zuzentzeko, lehentasuna emanez mendetasunerako arretari.

Iragan legegintzaldian Nafarroan arlo horretarako aurrekontuak 70 milioitik gorako igoera izan zuen lau urtetan, 16.000tik gora pertsona artatu ziren, eguneko 11 zentro berri eraiki ziren eta handitu egin ziren laguntzaileendako laguntzak, 1.070 euroraino.

Espainian, bestetik, Pedro Sánchezen Gobernuak sistemaren finantzazioa handitu du, 3.522 milioi euroraino, aurreko lau urteetan baino % 150 gehiago. Rajoyren Gobernuak Nafarroari emandako finantziatzeak, 14 milioikoa izan baitzen, eguneko 29 milioikora iragan da.

Gainera, aurreko legegintzaldian erabaki bat onetsi zen lurraldearteko batzordean, epe luzeko zainketen sistemaren eraldaketarako gutxieneko irizpideak ezartzeko asmoz, non Nafarroa aitindaria izan den.

Balioan jarri behar dugu administrazioko mailen artean ezinbestekoak diren lankidetzak eta kolaborazioa onuragarri gertatzen direla mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat eta haien senideentzat. Nafarroako Gobernuak, hain zuzen elkarlanean aritu da toki-entitateekin, Nafarroa osoan mendekotasunari arreta emateko zerbitzuak hobek eta gertuagoak izan daitezela lagunduz.

Halere, lanean jarraitu behar da gure ongizate-estatuaren zutabe nagusietako bat den horretan, mendetasunari arreta emateko sisteman. Kalitatezko arreta bermatu behar zaie hura behar duten guztiei, arreta pertsonalizatu eta eraginkorra, mendekotasun-egoerari aurrea hartzeko eta haien autonomia hobetzeko.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko

apustuarekin jarrai dezan, zuzkidura ekonomikoarekin jarraituz gertuko zerbitzuak sortze aldera, bereziki eguneko zentroak eta pertsonen autonomia eta etxebizitzan ahalik eta denbora luzeenean egotea sustatzen dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, toki entitateekin elkarlanean jarrai dezan etxez etxeko zerbitzua hobetu eta zabaltze aldera, azpimarra jarritz berrikuntza sozialean eta, batez ere, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrianetan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca



